

Alex Gurrutxaga eta Anjel Lertxundi

Literaturaren bizioak elkartuta

Aspalditik neukan amets txiki horietako bat bete dut. Binakako elkarrizketak irakurtzen nizkien benetako kazetariei, eta inbidiaz ni. Topatzen nintzen Alex Gurrutxaga eta Anjel Lertxundirekin han eta hemen, eta jakin-minez ni. Hala, bada, hitzordua jarri nien biei udazkenaren ateetan, eta Talai Berri txakolindegikoek eskuzabal egin ziguten harrera. Hona hemen goizeko sargoriaren ostean arratsak ekartzekoa zuen galernaren zain aletutako batzuk.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO



Prest zaudete?

Alex Gurrutxaga: Ez. [Barreak]. Galde-tzen badidazu, egia esango dizut.

**Hori jakinda, hasi egingo gara.
Nola sortu zen zuen bien arteko
laguntasuna?**

G: Nik nire bertsioa kontatuko dut. Anjel ezagutu nuen mutil koxkorretan; bere liburuak ezagutzen nituen eta irakurtzen nituen, eta ikusten gizon hau kalean, eta niretzat zen figura bat. Gero zortea eduki dut, figura ezagutzeaz aparte, bera ere ezagutu dudala. Nola dio topikoak: oso idazle ona, pertsona hobea? Ba kasu honetan egia da.

Anjel Lertxundi: Nire aldetik sekulako plazera izan zen, eta ohorea, dena esanda, bere tesia bidali zidanean begiratu nezan, eta sekulako ilusioarekin aritu nintzen hura begiratzeko. Konfiantza hori jarri izana niretzat oso inportantea izan zen.

**Biak daukazue literaturaren
gaixotasuna. Nola bizi duzue
harreman hori?**

L: Bizitza osoa eskaini diot horri. Zenbat aldiz pentsatu dudan zer izango nintzatekeen hori gabe... Ez dut imajinatzen nire bizitza irakurtzen eta idazten ez baldin bada. Dena den, harrigarriagoa egiten zait irakurtzen ez duen jende jantzia. Unibertsitateetik pasa eta hainbeste lekutatik pasa eta nola ez dion ezertxo ere esaten ez literaturak, ez musikak, ez antzeko diziplina artistikoek; erakusketa batera sekula joan ez den jende jantzia.

G: Ni irakurlea naiz. Literaturarekin daukadan harremana hori da. Humanitateetan ikasle naiz, pentsatzen dut ikasle naizela irakaslea naizenean ere bai, eta ikasten jarraitzen dudala. Eta literaturan irakurlea naiz, ezeren gainetik. Zerbait argitaratu baldin badut ez da idazlea naizelako, da irakurri egiten dudalako. Beti gogoratzen naiz Iratxe Retolazak esaten zuela literatur kritikan mugitzen den jendeari beti galdetzen zaiola ea noiz idatzi behar duen. Betiko galdera da. Edo idazten baduzu saiakera literario bat, edo artikulua akademiko bat, hurrengo galdera da: baina nobela bat noiz idatzi behar duzu? Nik behin ere ez dut eduki horretarako tentadirik.

L: Baina zure testuetan, artikuluetan – eta batez ere Xabier Leteri buruzko liburuak da hori garbi erakusten duena –, ez dago idazle akademiko, literaturaz modu literarioan idazten duen pertsona

bat dago. Ze literaturari buruz ere idatz daiteke, zoritxarrez...

G: Irentsezina izan daitekeen moduan, bai.

L: Zure kasuan, idazle bati buruz egin zenuen tesia, eta gero liburu gisa publikatu zenuen. Baina, nire ustetan behintzat, posible da saiakera literarioa egitea zientziar ari zarenean ere. Adibidez, idazle apartak ziren George Steiner eta Albert Einstein, eta beren testuak zoragarriak dira zientziari buruz ari direnean ere. Baina zergatik? Akademizismotik ihes egiten dutelako.

G: Ez dakit gurean tradizio hori asko landu den... Berriki irakurri dut Beatriz Fernandez lan bat dibulgazioan [*Hizkuntza gogoan*; Erein, 2021], eta ari da hizkuntzalaritzari buruz, baina ari da saiakera literarioa jotzen. Uste dut ez daukagula tradizio asko ildo horretan, gehiago nahi nuke.

“ ”

*Idazlea fidelagoa baldin
bazaio bere buruari,
esan nahi baita bere
egoari, bere testuari
baino, bost duroko
harremana izango du
itzultzailearekin*

Alex Gurrutxaga

**Eta bide hori zuk zeuk jorratzeko
asmorik ez, Alex?**

G: Badut gogo, aitortzen dut. Badaude gauzak gustatuko litzaidakeenak egitea, eta gaiak zeinei buruz zerbait esango nukeen; baina saiakerak, edo mota horretako liburuek, badute beste gauza bat nire uestez, eta hor daukazu [Anjel Lertxundiren] *Itzuliz usu begiak*-en adibidea: sekulako lana eskatzen dute zerbait taxuzkoa esateko. Hor dago irakurketa lan bat eta pentsamendu kritikoa atzean; urtetako lana da.

L: Bueno, halako lanak bizitza osoko obesioetatik sortzen dira. Halako batean, materiala badaukazu, baina ez biltzen joan zarelako, baizik azpimarratzen joan zarelako, eta gainera badakizu zer irakurri duzun eta zer ez, eta zer irakurri beharko zenukeen.

**Zuek biak lagunak zarete, baina
idazlearen eta literatur kritikariaren
arteko harremana ez al da ba
gatazkatsua?**

G: Imajina dezagun orain literatur kritikaria jartzen dugun tokian jartzen dugula itzultzailea. Zer moduz eramaten da idazle bat bere itzultzaileekin? Ez dakit, baina imajinatzen dut hor badagoela idazleak bere testuekin eta bere buruarekin daukan harremanaren arteko oreka bat. Idazle fidelagoa baldin bazaio bere buruari, esan nahi baita bere egoari, bere testuari baino, bost duroko harremana izango du itzultzailearekin; lehenago edo geroago okertuko da harreman hori, itzultzaileak esaten dienean: “Hau igual akatsa izango da”... Baina gero badaude idazleak, halako ohar bat egiten diezunean, esaten dutenak: “Ene! Alde egin dit”. Anjel bigarren tipokoa da. Horren adibidea da ez duzula zure testurik itzuli izan, adibidez. Hori da testuarekiko fideltasuna. Nik uste dut jende hori bere itzultzaileekin eta kritikariekin ez dela eramaten lehen idazle motakoak bezain gaizki.

L: Kritikak, komentarioak eta gorabehera horiek guztiak, denak dira ekintza literarioaren ondorioak. Zure baitako zerbait kaleratzen duzunean, horretarakoxe jartzen duzu, eta nahi zenuke jartzen duzun horrek ahal den arrakasta handiena izatea –arrakasta esan nahi dut esanahiaren aldetik–. Baina pakete horretan sartzen da norbaiti zure lana ez gustatu izana eta norbaitek zure lana txartzat jotzea eta, noski, bere betebeharrak da gainera txarra iruditut zaiola esatea. Gero, kontua da nik nola erreakzionatuko dudan horren aurrean. Eta badaude erreakzio intimoak, norberak gordetzen dituenak, eta beste batzuk daude publikoak. Ez dakit beti zuzen jokatu dudan, baina ni beti saiatu naiz nire erreakzioak neuk jaten.

G: Literatur kritikan, azkenaldian nire inpresioa da alde batetik daukagula kritika akademiko, gizartera iristen ez dena. Eta gero, prentsako kritika batzuetan iruditzen zait prestigioa galduta dagoela. Aldi berean, prentsako kritika idatzia ederreki asko jipoitzen duen jendeak, esanez oso kritika txarra dela edo ez dela kritika, horiek sare sozialetan mugitzen dira, oso karaktere gutxitan, edozer gauza esanez edozein modutan, eta nik pentsatzen dut idazle askorentzat horrek izan behar duela oso mingarria. Gauza bat da testuari kritika bat egitea testua irakurritik, argumentatuta, baina gaur egun ari da zabalitzen egur partiketa arin hori... Nik oso gaizki pasatzen dut horrekin.





Anjel Lertxundi (Orio, 1948), idazlea.

Irakasle ere aritu arren, literaturari emanda jardun izan da azken 30 urtean. Era askotako generoak landu ditu, haur eta gazte literatura, narratiba eta saiakera batik bat. Hain zuzen ere, ildo horretakoak dira azken urteotan kaleratu dituen bi obra: *Itzuliz usu begiak* (Alberdania, 2019), itzulpenari buruzko hausnarketa literario bezain zehatza, eta *Desertuan behatxuloa* (Alberdania, 2022), teselaz osatutako hausnarketa- eta memoria-liburua.

Alex Gurrutxaga

(Zarautz, 1988) literaturan doktorea da.

Bere tesian Xabier Leteren poetika aztertu zuen, eta 2020an liburu-formatuan plazaratu zuen bere ikerketaren muina: *Xabier Lere. Aberriaren poeta kantaria*. Euskarazko saiakeraren arloko Euskadi Saria irabazi zuen lan horri esker. Gaur egun, EHU irakasle jarduteaz aparte, Leteren lana zabaltzen dihardu Joana Otxoa de Alaiza pianojolea-rekin batera, Txori kantazale emanaldian.

Zergatik utzi zenion kritikak egiteari?

G: Nekatu nintzen eta...

L: Zenbat denbora egin huan?

G: Bost urte.

L: Hainbeste?

G: Nahikoa.

Zerekin nekatu zinen?

G: Asko kostatzen zait nire testuekin konforme gelditzea, Anjelek badaki. Eta, aldiz, sare sozialetan oso gauza arinak esan zitezkeen. Aitortzen dut injustiziaz bezala bizi nuela, nik zenbat sufritzen nuen edo zenbat lan egiten nuen, eta gero gehiago balio du sare sozialetan famatu batek esatea liburua zoragarria dela. Eta zuk agian liburuan aurkitu dituzu arazo pilo bat, iruditzen zaizu zuk egin duzun irakurketak eta argudioak eta bilaketak ez duela balio. Kritikari askori pasatzen zaio, gaztea baldin bazara, edo emakumezkoa baldin bazara, zuk esaten duzunak balio justua dauka. Horrekin asko sufritzen nuen.

Aho-zapore gozoz amaitu nahi nuke eta, aipa dezagun biok konpartitzen

“ ”

**Kritikak, komentarioak
eta gorabehera horiek
guztiak, denak dira ekintza
literarioaren ondorioak
(...) pakete horretan sartzen
da norbaiti zure lana ez
gustatu izana eta norbaitek
zure lana txartzat jotzea**

Anjel Lertxundi

duzuen beste zaletasun bat: Italia.

G: Nik urtebete bakarrik pasatu nuen han bizitzen [Trenton]; ez da asko, baina izugarri disfrutatu nuen, oso literatura irakasle onak izan nituen. Han eduki nuen aurrenengo irakaslea izan zen literatura espainolera engantxatu nindue-na. Gero zer pentsatu handia eman dit: Italiara joan behar Calderón de la Barca

gustura irakurtzeko. Zerbait esaten du literatura irakasteko moduz. Italian humanitateek-eta tradizio handia daukate, eta beste prestigio bat ere bai. Tradizio handia dago, datorrena humanismotik eta Errenazimentutik.

L: Nire kasuan beste gauza bat izan zen Erroma: faxismotik joatea faxismoa aspal-ditik gaudituta zeukan herrialde batera. Bi lagun egin nituen berehala, bi lagun handi, etxepe berean. Batek dendatxo bat zeukan, eta faxista zen. Bestea zen etxeko atezaina, eta komunista. Igandetan, hartu komunistaren autoa, eta eramaten ninduten Erromako kafeak probatzera.

G: Fantasia.

L: Eta zer eztabaida izaten zituzten eta zer ez zioten elkarri esaten, politikaz eta denaz! Ni etxera bueltatzen nintzen konbentzitura hurrengo egunean ez ziotela elkarri hitzik egingo. Ba hurrengo egunean bazirudien ez zela ezer ez pasa! Hemengo giro politikotik joanda, dena isiltasuna, dena gordean, iluntasun horretatik joanda, eta naturaltasun hura ezagutzea, gainera italiarren kastarekin... Ez dago unibertsitaterik gehiago irakatsi didanik giro horrek baino. ●